

# BERRIGARA

24 zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1991, ekainak 7




**Datorren ikasturtean  
zer?**



**Musika Eskola:**  
Udaberriko  
Jai-Kontzertu  
arrakastatsua



**Abestia grabatuta:**  
Kilometroak 91k  
badu doinua



**Ettxaniz-Galarza:**  
Bergararra  
zoragarri




**KILOMETROAK 91**

**BERGARA, Urriak 6**

**Banatzaile ofiziala**

**MINERardak**

Tfnoa: 76 57 36 / 76 59 89



# GAMAK

## INFORMATIKA GAUZAK



### SALTOKI TERMINALA T.P.V.

✓ POS-401 saltokiko terminal berri hau diseinu zaindu baten eta goi mailako ikerketa-lan baten ondorioa da.

✓ Saltokiko terminalak erabateko soluzioa eskaintzen dizu:

funtzionala, elkargarritasuna eta prestazio bikainak. Zure negozioa edozein dela ere (farmazia, autozerbitzua, jatetxea, erropadenda, etab...), guztiz kontrolatuta eduki ahal izango duzu saltokiko terminalari esker.

✓ Orain arteko kutxa erregistratzaile ereduak guztiz aldatzen dituen sistema, dirua gordetzeaz gain almatzen, fakturazio eta kontabilitatea ere eramaten duena.

ARTZAMENDI 1 Tfnoa: 76 56 85 Faxe: 76 55 97 BERGARA

# BONOFOTOA

BERRIGARA

Jardun Elkartea

1991, ekainak 7



M. A. Elkorobereziar



## Eusebio Mugika

Hamaikagarren BONOFOTOA zozketatu dugu  
oraingoan, eta 10.000 pza.ko saria Eusebio Mugikarentzat.  
Berak esan bezala, argazkia Uberako San Paulo elizatik  
atera genuen.  
Zorionak, Eusebio!  
Besteok badakizue; saiatu beheko galdera erantzuten!

**Zein da zubi ondoan dagoen baserriaren izena?**


Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfonoa: \_\_\_\_\_

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

**Errotalde Jauregia  
20.570 Bergara**

**Oharra:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo  
BONOFOTOarako gordeko litzateke, FOTOPOTEAN

# GIARTZU



## GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

# BERGARAKO AZOKA

<p><b>JUANITA MORENO</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 12 54 Azoka: 76 02 44</p>	<p><b>GABLONDO</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Azoka: 76 26 98 Etxekoa: 76 26 53</p>	<p><b>JANARI</b></p> <p><b>FRESKOAK</b></p> <p><b>AUKERATUAK</b></p>	<p><b>LURDES</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Esneko Moxala</p> <p>Tfnoa: 76 12 17</p>	<p><b>IZOTZ</b></p> <p><b>Konjelatuak</b></p> <p><b>Errefrijeratuak</b></p> <p><b>Marskoa</b></p> <p>Tfnoa: 76 56 91</p>
<p><b>MERTXE</b></p> <p><b>Oilaskoak Urdaitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 54 67</p>	<p><b>YANIRE</b></p> <p><b>Frutadenda</b></p> <p>Tfnoa: 76 52 34</p>	<p><b>LA BERMEANA</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 15 16 Etxekoa: 76 00 48</p>	<p><b>PATRI</b></p> <p><b>Harategia Txemikitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 02 20</p>	<p><b>PRIMI</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Azoka: 76 15 90 Poligonokoa: 76 21 91 S. Antonikoa: 76 21 08</p>

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezar

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate. Eduardo Mendibil

**Maketazioa:**

Edume Arenaza

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel

Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel

Elkoroberezar, Josune Iñarra eta

Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga

eta Ainhoa Bikufia

**Argazki laborategia:** A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,

J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.

Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta

Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikie eta marrazkiak** Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketak:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Trada:** 2.500 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## 7 OSTIRALA

- **Zinea:** "Bailando con lobos", 10.30etan.
- **Erakusketak:**
  - Kultur Etxean Getxoko Artegitza Kolektiboa taldearen margo Erakusketa. 16ra arte zabalik.
- **Kontzertuak:**
  - Elorrion, Gaztetxean: *Frog Sandwich*. 10etan.
- **Pilota partiduak:**
  - Frontoian, arratsaldeko 7etan, Deba Arroa Txapelketa: Arrasate - Bergara.
  - Elgetan, gaueko 10.30etan: Irazoki/Ubera; Mikelpellena/Arroitajauregi eta Errandonea/Artola I.
- **Goardiako farmazia:** Estella (Matxiategin)

## 8 LARUNBATA

- **Zinea:** "Bailando con lobos"; 7etan eta 10etan,
- **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikuteko aukera: Ansola-Urra/Zabalaberna; Bengoetxea IV-Regi IV/Soroa III-Errandonea; eta bukatzeko Irazola-Alberdi /Gabilondo-An-

## dueza VI.

- **Bertso afaria:** Antzuolako Gaztetxean, 8.30etan. Parte hartzaileak: Jon Maia eta Igor Elorza bertsolariak eta Ritxar Cuevas soino jolea.
- **Dantzaldia:** Espoioian, gaueko 11etan *Ibaiak* taldearekin.
- **Goardiako farmazia:** :Mozos (San Pedron)

## 9 IGANDEA

- **Zinea:** "Bailando con lobos"; 7retan eta 10etan.
- **Argazki erakusketa:** Ekainaren 16 ra arte Oñatiko San Miguel parrokiaren klastroetan Jon Arzuagaren argazki erakusketa.
- **Goardiako farmazia:** Mozos (San Pedron)

## 10 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Bailando con lobos", 7.00 etan.
- **Ikastaroak:** Sexualitate ikastaroa Kultur Etxean 4.30 etatik 6.30etara. Gaiak: *Gure gorputza; Menopausia eta sexualitatea; Bikoteen arteko harremanak; Maitasuna eta sexua; eta azkenik, Sexualitatea eta hirugarren adina.*
- **Goardiako farmazia:** Camacho (Oxirondo plazan)

## 11 ASTEARTEA

- **Diapositiba emanaldia:** Kultur Etxean 7etan Pedro Luisendialositiba emanaldia. Gaia: "Idaho, Indioak eta Euskaldunak".
- **Goardiako farmazia:** Puy (Barrenkalen)

## 12 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Guallar (San Antonion)

## 13 OSTEGUNA

- **Kilometroak 91:** Arratsaldeko 7.30etan, Udalteko pleno aretoan, urrian antolatuko den Kilometroak 91 egitasmoaren aurkezpena egingo da herriaren aurrean.
- **Goardiako farmazia:** Estella (Matxiategin)



## Beheko

### Taberna

MENESTRA ETA KONEJOA  
DIRA GURE BEREZITASUNAK

ANGIOZAR Tfna: 76 55 74

## GOIERRI

### AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Enparantza, 5  
BERGARA

Tfnoa: 76 41 50



## Gallastegui Jostundegia


Mahoizko lanerako jantziak

edro 17, Tfnoa: 76 10 85 BERGARA



Tfnoa: 76 25 99

## Tiiira ba!



## Josu Okina

### Sinestezina gerta daiteke...



...baina egi borobila bihurtu da. Joan zen astean Santana ostean zuhaitz gazte eder bat bota zuten, hain zen bitxia bere gerrian etiketa bat zuen jarrita, izen eta guzti, guk ezagutzen dugunez behintzat, bere motako azken zumarra. Construcciones Beitiak bota zuen inongo baimenik eta galdekizunik egin gabe. Gogoratu behar dugu, orain hilabete batzuk Lasagabaster aldean bota zituen zuhaitzak zirela eta, udaletxeak arau bat jarri zuela: herrian edozein zuhaitz bota aurretik udala jakinean jarri behar dela, honen baimena lortzeko. Dena dela ingurugiroari buruzko arauak (eta...betikoak), hankapetik pasatzen dituzte. Betiko leloa: zuhaitz horiek traban zeudela, itsusiak direla, "garbitu" egin behar behar zela ingurua edo beste edozein burugabekeria.

Santana inguruko landaretzak izan duen jipioa eta bertako aldaketak aztertzen baditugu, zoritxarrez ez genuke beste munduko ezer ikusiko, zeren eta herriko beste txoko asko bezala zeharo murrizturik gelditu da eta oraindik gelditzen diren apurrak arrisku bizian daude. Hala eta guztiz merezi du jakitea horietako zuhaitz asko etxebizitzak eraikitzeko bota zirela; baina beste asko motiborik gabe, garbiketaren izenean, grua montatzeko, kamioiak erosoago mugitzeko, etab. Honegatik betirako galdu ditugu bertako haritz ederrak, astigarrak (denak), zumarrak (denak), ereintzak, gaztaina, araukaria, ezpel galantak, kañabera eta beste zuhaitz-zuhamuxka paregabeak.

Ziur gaude honez gero batzu batzuk pentsatua izango dutela mindegian batetik landare exotiko tristeren batzuk ekartzea, dauden azkenak kendu eta horiek landatzeko. Badakizue... kanpokoa beti izan ohi da bertan berezkoa baino hobea!

Egin diezaiozun aurre "arduragabekeriari" lehen bait lehen. Ordua da, oraindik eskutan dugu naturaren aberastasuna behar den neurrian baloratu eta babesteko aukera, bestela bihar beranduegi izan daiteke.


*Mendia Bizirik*

### Zinea, lehen bezala

Itxaropentsu jaso nuen Novedades zinea berriztatu behar zutelaren notizia, baina obrak amaitu eta gero lehen bezain inkomodua dela esan beharra daukat. Ez dute eserlekuen arteko tartea ia ezer ere haunditu, eta butaka berriak ere ez dira beste munduko gauza.

Beste detailetxo bat ere salatu nahi dut, pelikula amaitzean agertzen diren kreditoen mozketak hain zuzen. Bagara hor azaltzen diren zenbait datutan interesatuak gaudenok, eta beraz, filma oso-osorik ematea eskatu nahi nieke zinekoei, besterik ez.

*Trabis*



### Amorruaren aurkako txertaketa

Gipuzkoako Albaitari Elkargoak, Bergarako Udalaren laguntzaz antolatuta, amorruaren aurkako borondatezko txertaketa kanpaina burutu zuen joan zen astean Bergarako erdikalde eta auzoetan. Roman Lazpiur bergarako albaitariak eta Itziar eta Pello arrasatearrek, 134 txakur txertatu zituzten bost egunetan: "*orain dela bi urte baino gutxiago*".

Kontutan hartu behar da, aurtengoa ez dela derrigorrezkoa izan, borondatezkoa baizik; hori dela eta, itxura denez hainbatek bere katu eta txakurrak txertatu gabe utzi ditu.



### Gasa herri-barrura heldu

Naturgas enpresak Santa Marina, Ariznoa eta Mizpirualde Egoitzaren inguruetan lanean dihardu gas kanalizazioa burutu asmoz. Obra hauekin gas instalazioaren 3. faseari eta, bide batez, 88an hasitalo lanei amiera emango zaie. Herri-barruko obra hauek uztaile hasieran amaitzea espero da eta gasa etxe inguruetara eramatea baino ez da egingo, geroxeago interesaturik daudenek euren etxebizitzak beharrezko ekipamenduarekin egokitu ditzaten. Bestalde, Bergarako Udalak gas eta likidoen instalazioei buruzko ikastaroa antolatu du langabetuentzat.



### Kiroldegia obretan

Labegarrietako kiroldegian hasi dira jadanik pista aldatzeko obrak. Hamalau milioiko aurrekontu batez lehenbizi pista behar bezala isolatu eta jarraian gainetik egurrez estaliko da. Pista osoa barandilla batez inguratu eta ikusleek ez dute izango bertan ibiltzerik. Obrak direla eta datorren astean ere kiroldegia itxita egongo da.

☐ **Bertso lehiaketa**  
Larunbatean, Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan Eskolarteko Bertso Lehiaketaren finalak jokatu dira. Taldekako bapateko modalitatean, finalisten artean, Ainhoa Agirrezaldegi 12 urteko bergarra izango dugu. Ainhoaren taldeak joan den larunbatean Bergaran egindako bailarako kanporaketetan lortu zuen finalerako txartela. Ainhoa eta bere hiru lagunek bertso bana bota beharko dute finalean. Suerte on!

☐ **Haurrak eta Uda**  
Udaletxeak 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoentzat zenbait ekintza antolatu du aurten ere. Astialdiko ekintza hauen helburu nagusia gaztetxoek uztailean izaten dituzten ordu hilak betetzea litzateke. Horretarako, Udaletxeak uztailearen 3tik 24ra bitarteko goizetan zenbait irteera, joku, sukaldaritza proba, eta bestelako ekintzak prestatu ditu. Izena emateko epea ekainaren 14ean bukatzen da; gogoratu 1.500 pzta. ordaindu beharra dagoela.

**HALTZARI**  
FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA  
SUKALDERAKO ALTZARIAK  
BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57  
BERGARA

**KONDE**  
PAÑADEROKUA  
Burdinate 1  
BERGARA

**ERREKI**  
ERRETEGIA  
TXITXARRO ETA SAIHESKI-JANA  
ASTEBUKAERETAN  
Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51  
BERGARA



## Kontzertu arrakastatsua

Arrakastatsua gertatu zen Musika Eskolak igandean antolatu zuen jai-kontzertua.

Goizeko 9,30etan Gazteen Bandak herriko kaleetatik zehar kalejira egin zuen. Jarraian, eguerdiko 12etan, Udaberriko kontzertu haundia eskeini zuten Musika Eskolako talde ezberdinek. Angel Agiriano, Cristina Larrañaga eta Alberto Laskurainek zuzenduriko Gazteen Bandak, Tipleen Abesbatzak eta Akordeoien Orkestak, frontoian bildu ziren ikusleen animoak berotu ondoren, Alfredo González Chirlaqueren Orkestra Sinfonikoak ere emanaldi bikaina burutu zuen.

Ondoren, Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoiko 12 ahotsen laguntzaz, sei dantzari bikoten koreografiarekin apaindurik, "Carpenters" taldearen selekzio ederra eskaini zien ikusleei. Ikusgarria benetan. Jendea gustora irten zen frontoitik.

Musika Eskolako irakasle eta ikasleek, jaiari segida emateko, Espaloian herribazkaria izan zuten.

Bazkalostean, ibaiak taldeak alaitutako dantzaldia izan zen bertan bildu ziren 300 lagunentzat.

## Omenaldi unkiagarria

Frontoian antolatutako kontzertuan, Udalak tarte bat aprobetxatu zuen, herriaren alde hainbeste lan egin duten bost bergarar omentzeko: Luis Mari Gutierrez, Felix Iñiguez de Heredia, Felix Beitia, Bittor Alberdi eta Jesus Mari Eguren, azken honek Pertxa elkartearen izenean, Jose Luis Elgoro alkatearen eskutik oroigarriak jaso zituzten, eta Anaje Narbaizaren aldetik bertso bana.

### □ Aritzeta

Aritzeta abesbatzak larunbat honetan Gipuzkoako XXV. Abesbatzen Jaialdian hartuko du parte, Zarautzen, 8.30etatik aurrera antolatuko den ekitaldian.

### □ Diapositibak

Asteartean, 7retan, Kultur Etxean, Pedro Luisek Idahon ateratako diapositibak emango ditu.

### □ Gotzaia hizlari

Jose Maria Setien Donostiako gotzaia Arrasateko San Viator ikastetxera hurbilduko da datorren asteartean, arratsaldeko 7retan, bertan hitzaldia eman asmoz. Gotzaiak sozialismo, kapitalismo eta eleizari buruz jardungo du. Hitzaldi hau Bergara eta Arrasateko artxipres taldeko komisiok antolatu du.



## Konponketak banketxeetan

Bergarako finantza mundua hankaz gora dugu asteotan. Kontua da ia herriko banketxe eta aurrezki kutxa guztiak egun hauek aprobetxatu dituztela zenbait obra burutzeko. Horrela BBV-k ihauterietan jasotako erasoaren ondoren, Bidekurutzetan duen lokala erabat berriztatu eta martxan dugu dagoeneko.

Lankide Aurrezkiak ere tokiz aldatu behar izan du Fraiskozuriko lokala apaindu arte, eta bitartean, Ibargarai Ibilbidean zabaldu dute lokaltxo bat.

Banco Santanderrek, bestalde, zabaldu du berriz erebere Fraiskozuriko sukurtsala bertan obrak burutu ondoren.

Azkenik, Kutxak, bere fusio juridikoaren ondoren, Beheko Plazako merkatu zaharreko etxabehea egokitzeari ekin dio. Gauzak horrela, Kutxak orain dituen lau sukurtsaletatik hiru, Plazakoan bateratuko dira eta Toki Ederrekoa dagoenetan mantenduko da.

Bankuen batuketa dela eta Banco Central eta Banco Hispano Americanoak elkartu omen direnez aurki, seguruen, beste aldaketa batzuk ere izan ditzakegu.

**DIEGO VALOR**  
  
 Ileapaindegi mistoa  
 ✓ Estetiziana  
 Tfnoa: 76 37 70 Zubieta 38 behea

**ONENA**  
 TINDATEGIA  
 BARRENKALE 29 BERGARA

**TOKI-EDER**  
**Taberna**  
 Pintxoak eta eguneko bazkariak  
 Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA



**Abdon Juaristi**

Gogoratu ere, ekainaren 22ra arte zabalik egongo dela Donostiako Goyaz galerian, Abdon Juaristi pintore bergararrak Gipuzkoari buruz prestatutako erakusketa.

**Erakusketa**

Larunbatetik aurrera, Getxoko Artegitza Kolektiboaren erakusketa izango duzue ikusgai Kultur Etxean.

**Euskal Jaia**

Ekainaren 23an egingo den Haurren Euskal jaiaren gure herrian bilduko diren 400 dantzariak bazkaltzen emateko prest dauden familiek dei dezatela 762676 telefonora. Aurtengoa, Euskal jaiaren XIII. edizioa izango dugu, eta 400 dantzarietz gain, txistulari, dultzainero, soinu-jole eta Musika Eskolako txaranga ibiliko dira kaleak girotzen.

**Kilometroak 91: abestia prest**

Ostiralean Izaskun Labaien eta Ikastolako 12 gaztetxo Donostiako Xirula Mirula estudioetan izan ziren *Kilometroak 91*ko abesti ofiziala grabatzen. Xabi Labaien, Izaskunen anaia, instrumentu eta betegarrien arloaz arduratu da eta gaztetxoek, bestalde, ez dute inolako arazorik izan Juan Martin Elexpuruk abestirako idatzitako letra ikasteko. Abestiaren nahasketak beste estudio batetan egingo dira eta ekainaren amaierarako kalean egotea espero da. Horiez gain, irailean telebistarako spota eta bideoa grabatzeari ekingo diote antolatzaileek eta irratian ere aurtengo Kilometroak edizioaren berri emango da behin eta berriro.

Azkenik esan aste honetan zehar bergarako talde musikalek ( Urretxindorrek, Orfeoia, Arizeta eta Zatzada besteak beste) euren abesti bat grabatu dutela Xirula Mirula estudioen laguntzaz eta abesti guzti horiek salgai jarriko den zinta batetan bilduko direla. Zinta horretan Kilometroak 91ko abestiari ere tartetxo bat egingo zaio.

**Bergara janari denda itxi**

Joan den larunbatean, ekainak 1, itxi zuten gure herriko komertzio zaharrenetarikoa bat, Artekale 2ko Bergara janari denda, hain zuzen ere. Florencio Labaien eta Mari Tere

Bergara senar-emazteak, 1951. urtetik, bergararron zerbitzura lanean jardun ondoren, jubilatuta eta denda ixtea erabaki dute: "*seme-alabek ez dute jarraitzeko gogorik eta gu kantzautu gaudenez, larunbatetik aurrera berriro ez zabalteza erabaki genuen*".

Bergara janari denda 1922an ireki zuten Artekale 2an Jose Bergara Matxikote eta Eustakia Iturbe Telleriak, Mari Tere Bergararen gurasoek. Esan behar da, dena den, hauen arbasoek, San Pedro kaleko 11n, lehenengo, eta 26an gero, izan zutela komertzio bat.

1891. urtean zabalik zegoen, jadanik, San Pedro 11an, Jose Maria Tellería eta Ramona Zabaleta Aranes senar-emazteen denda. Hauen alaba, Josefa Antonia Telleria Zabaleta Elorregi auzoko *Aristi* baserriko Pedro Iturbe Igarzarekin ezkondu eta bion artean *Aranekua* izenez ezagutzen zen txerrikitegia zabaldu zuten San Pedro 26an. Aipatzekoa da, garai haretan txerri hilketak kalean bertan gaez egiten zirela. Pentsa beraz, auzokoek jasan behar zituztenak...

1922an, esan bezala, Artekale 2an *Bergara* janari denda ireki zuten Jose Bergara Matxikote eta Eustakia Iturbe Telleriak, eta horrela joan den larunbatera arte. San Pedron lehenengo eta Artekale gero, gutxienez ehun urtetan zabalik iraun duen komertzioak ez ditu berriro ateak zabalduko. Florencio eta Mari Terek 1.951.etik egunero-egunero bergararrei zerbitzen jardun ondoren, ondo merezitako oporrak hartuko dituzte.

**A. ZANGITU**

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

**IGARZA****Merzeria Lenzeria**

Udarako bainujantziak

Irala5 Tfnoa 76 24 88

**Euskalduna  
Taberna****OSINTXU**

# Bergarako ikastetxeak Hezkuntz Erreformaren atarian

**1990-91  
ikasturtearen  
amaierara heldu  
garenean, ikastetxe  
ezberdinek hurrengo  
ikasturtea  
prestatzen hasi dira.  
Joan den astean  
amaitu ziren eskola  
guztietan, datorren  
urterako aurre-  
inskripzioak...**

Normalean inportantzia haundiegirik ematen ez bazaio ere, aurre-izugarriko garrantzia eduki dute aurre-matrikulazioek. Izan ere, ikastetxeei Hezkuntz Erreforma gainera etorri zaienean eta Bergarako mapa eskolarra edo hezkuntz plangintza finkatu gabe aurkitzen denean, ikastetxe ezberdinen arteko ezadostasunak areagotu egin dira.

Gaur egun, oinarrizko eta erdi-mailako heziketari dagokionez, bost ikastetxe ditugu Bergaran: Mariaren Lagundia Ikastetxea, Aranzadi Ikastola, San Martín Ikastetxe Publikoa, Institutoa eta Lanbide Heziketa Eskola.

## Zer eskeintzen dute?

Aipatu ikastetxeok honako hezkuntza moeta eskeintzen dute: Mariaren Lagundiak, 3


urteko haurretatik hasi eta 19 urterainokoa. Hau da, Eskolaurrea, OHO (EGB), IEE (REM) eta Lanbide Heziketa. Oinarrizko Heziketan edo OHOn (D eta B ereduak) eta Lanbide Heziketan (A ereduak) ezik, besteetan D ereduak (guztiz euskaraz) ematen du.

Aranzadi Ikastolak euskarazko Eskolaurrea eta OHO eskeintzen ditu. San Martín Ikastetxeak, Eskolaurrea (D ereduak) eta OHO (B ereduak), ematen ditu. Institutuan, BBB eta UBI ematen dira A eta D ereduak. Lanbide Heziketa Eskolak, azkenik, IEEren lehenengo zikloa (16 urterainoko Batxilergo Orokorra) eta LH2 eskeintzen ditu.

## Erreforma: aldaketa

Hasteko, derrigorezko hezkuntza, lehen 14 urterainokoa zena, orain 16 urteraino luzatuko da. Lehen OHO 14 urterainokoa baldin bazen, erreformarekin, bi zatitan banatuko da. 12 urteraino lehenengoa, eta 12 urtetik 16raino, bigarrena. 12 urtetatik 16 urte-tara bitarteko aldia, lau ikasturtetakoak, bi ziklotan banatuko da.

Hamasei urterekin ikasleek, Bigarren Hezkuntzako Gradudun titulua jasoko dute. Hemendik, batxilerra edo erdi-



mailako lanbide hezkuntza egiteko aukera emango zaie.

Batxilergoak bi ikasturte ditu. Ikasketak hauek gainditu ondoren, ikasleek (18 urterekin), Batxilertitulua jaso eta Unibertsitatera edo Goi-mailako Lanbide Hezkuntzara joan ahal izango dute. Lanbide Heziketa aukeratzeko dutenek, 19 urterekin, Goi-Teknikari Titulua eskuetan, lan mundura pasatzeko aukera eskeinitzen zaie. Unibertsitatera doazenean, berriz, ikasketak amaitu ondoren diplomatura edo lizenziatura lortuko dute.

## Arazoak Bergaran

Bergarako bost ikastetxeetatik bik, Mariaren Lagundiak eta Lanbide Heziketa Eskolak alegia, neurri batean Erreforma Legeak markatzen dituen ardatzak finkatzen hasiak dira. San Martín Ikastetxe Publikoak berdin jarraitzen du. Aranzadi Ikastolak, bestalde, Jaur-laritzako Hezkuntz Saitetik, datorren urtean BBBa (BUP) jartzeko baimena jaso du eta

orain arteko 14 urterainoko heziketa 17 urteraino luzatu ahal izango du. Institutoari, berriz, IEE jartzeko baimena ukatu egin dio Hezkuntza Sailak. Eta Aranzadi Ikastolak BBB jartzeko hartutako erabakia ez dute begi onez ikusten Institutoan. Bi ikastetxeen arteko harremanak ez dira batere onak, une honetan.

## Eskola Kontseilua

Duela bi urte, Hezkuntza Erreforma zetorrela ikusirik, eta honek herrian sortaraziko zituen arazoak kontutan hartuz, Udalak ikastetxe guztiak deitu zituen Eskola Kontseilura. Helburua, eskola ezberdinen eskaintzak kontutan hartuta, Bergaran eskola mapa orekatu bat osatzea zen. Gauzak horrela, Aranzadi Ikastolaren eta Institutoaren arteko tira-birak direla eta, une honetan lanak geldirik aurkitzen dira. Udalak, dena den, Bergarako heziketa egoerari buruzko ikerketa egin dezala eskatu dio Siadeco enpresari.

# ARREGI

Eraikuntza  
materialeak

Billegia Teilerian Tfnoa: 76 27 93  
Labegarieta Auzoa

# ETXAGI

Afariak  
Bazkariak  
Gosariak  
Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua

JATETXEA

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

# KIZKUR



Ileapaindegia  
Solariuma

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

**H**onakoan, Bergarako ikastetxeak bihurtu ditugu erreportaiaren protagonista.

**Hori dela eta, euren eritziak jakin asmoz, bi galdera hauek luzatu dizkiegu:**

**1. Nola ikusten duzue Bergarako Hezkuntzaren egoera?**

**2. Zein da zuen eskaintza?**

## San Martin Ikastetxea



**Jesus Alvarez**  
(zuzendaria)

1. Herri mailan, uste dugu ez dagoela inongo hezkuntz plangintzarik.

Ikasturte honetan, Udal Eskola Kontseilua hutsune hau betetzen saiatu da, baina interes partikularrak direla eta, ez da posible izan.

2. Momentu honetan ikastetxe honek eskaintzen du:

- Eskolaurrea guztiz euskaraz.

- O.H.O.n B eredu dena euskaraz, matematika eta hizkuntza (erdera) izan ezik.

- Heziketa Berezia:

- Gela irekia

- Gela itxia

- Ezin dugu D eredu eskaintzari zeren Eusko Jaurlari-

tzak ukatu bait zigun, herrian aukera hori bazegoela aipatu zuten nahiz eta aukera hori pribatua izan.

## Institutua



**Xabier Larrañaga**  
(zuzendaria)

1. Nola ikusten dugun Bergarako mapa eskolarra

**OHO:** Ez zaigu ongi iruditzen dagoen moduan.

Orokorrean eskaera guztiak betetzen direla ematen du, baina beharrezkotzat jotzen dugu OHO-ko publiko-eredu ezartzea. Herri mailan erabiltzen den eskema apurto behar da: Eskola publikoa = Kastellanoentzako eskola.

**BUP-a:** Institutuak betetzen ditu herri eta inguruko eskaerak (Elgeta, Antzuola



eta Soraluze). D eredu aspalditik ezarriko dago; A ereduak desagertzeko joera darama B-k ordezkatzeko duenak.

Ikusten dugun akatsa zera da: REM-eko batxilergoa osatzeke dagoela, bi adar falta direlarik (Zientifikoa eta Humanistikoa). Etorkizuneko ipintzea komeniko litzaiteke, baina Administrazioaren borondate ona falta da. Hala ere, denbora gutxirako bizitza dute, bai REM-ak, baita BUP-ak ere.

Institutua, aurrean, prest egon da, Udaletxearen planifikazioari jarraituz, hutsune hori betetzeko.

**Lanbide Heziketa** ondo hornituta dagoela iruditzen zaigu. Modulo eta Batxilergoen ezarpenak oztopo bat du: ikaslearen kopuruak muga dezakeela beraien ezarpena. Hau gerta ez dadin komeni da publikoko ertainetako batze prozesua azkartzea modulo eta batxilergo gehiago lortzeko. Eta hau planifikazioaren bitartez lortu behar dugu.

2. Zein da gure eskaintza: Institutuak Batxilergoa eskeintzen du. Aurtengo ikasturtean (90-91), ikasle-

goa honela egon da banatuta:

**1. maila:** D eredu, 3 talde, 98 ikasle. A eredu, berriz, 2 talde, 38 ikasle.

**2. maila:** D eredu, 3 talde, 97 ikasle. A eredu, berriz, 2 talde, 36 ikasle.

**3. maila:** D eredu, 3 talde, 98 ikasle. A eredu, berriz, 2 talde, 58 ikasle.

**UBI:** D eredu, 3 talde, 103 ikasle. A eredu, berriz, 2 talde, 58 ikasle.

BUP-eko lehendabiziko 2 urteak ikasle guztientzat antzekoak izaten dira, hala ere, Frantsesaren eskaera bultzatu nahi dugu. 2. urtean EATP-ak aukerakoak izaten dira. Aurrean 5 eskaintzen ditugu (Informatika, Argazkilaritza, Marraketa Teknikoa, Hogar eta Frantses Komertziala) eta asmoa dugu beste bat eskaintzeko: Kultura Klasikoa.

Hirugarren urteko ikasketak plangintza zabaldu egingo da.

Bi adar nagusi daude: Zientzia eta Letra arloak (posible izaten da talde nahastu bat ere sortzea).

Ikasle bakoitzak nahi dituen gaiak aukeratzeko dute.

UBIko edo COUko eskaintza askoz zabalagoa da.

Unibertsitateko ikasketak kontuan izanik lau adarretan

banatzen da azken ziklo hau:

- Bio-Sanitariora
- Zientifiko-Teknologikoa
- Giza zientziak
- Humanistiko linguistikoa

Kurtso honetan, zenbait gai beharrezkoak dira eta besteak -gehiengoak- aukurakoak. Hemen ere, ikasle bakoitzak, Unibertsitatean egingo duenaren arabera aukeratzeko dituen ongien datozkion gaiak.

Nahiko korapilotsua ematen duen sare hau posible izaten da osatzea kurtso bakoitzean ahalik eta ikasle kopuru gehien izaten denean.

Guraso Elkartearen bitartez daukagun psikologo baten bidez karreraren hautaketan orientazioa, tesen aplikazioak, eta abar burutzen dira.

Amaitzeko, gure aldetik aipatu, herriaren onerako nahi dugun edozein planifikazioaren barnean sartzeko prest gaudela.

## Mariaren Lagundia ikastola



**Garbiñe Erdozia**  
(zuzendaria)

1. Oso garai interesgarri- an gaude heziketari dagokionez. Egia esan, hezitzaileok etengabe daukagu gure ekin- tzari buruz pentsatu beharra. Baina, momentu honetan gure heziketa lanari buruz hausnartzeko beharra ez da-

torkigu gure lanetik bakarrik, kanpotik datorkigu, LOGSE irakaskuntzaren erreforma- rako lege honek bultzaturik.

Aldaketa bezala dakarki- gunaz jabetu, alde pedagogi- korik onenak jaso eta prakti- kan ipintzeko behar dituen bideak urratzea, irakasle- goari dedikazioa eta ahalegin handia eskatzen dion ekintza da.

Mariaren Lagundia Ikas- tolakook orain dela bost urte hasi ginen erreformaren bi- detik, Irakaskuntza Ertainen Erreforma (REM) delakoa ezarri eta 16 urterarte derri- gorrezko ikasketak luzatuz, Deba Garaiko beste ikastetxe batzuren antzera. Urte hau- etako esperientzia guztiz baliagarria izan zaigu, dena den, legea ezartzen hasten denean egokitze epe gogorra, baina aberasgarria ere bai, bizi behar izango dugu irakasleok.

Ildo horretan, Goi-Batxi- lergoak herriko zentru des- berdinen artean banatzeko pausoak ematen hasi beharra ere laster batean helduko da.

2. Ikastola honek heziketa maila guztiak eskaintzen ditu:

- Eskolaurrea
- O.H.O.
- Batxilergo Orokorra (IEE / REM)
- L.H. / F.P.

Hiru urterekin hasi eta hamasei urterarte Derrigo- rrezko Heziketa dugu, eta ondoren Lanbide Heziketako Sanitario ikasketak, zeinetan "Gutxitu Psikikoen Hezi- tzaile" titulua lortzen bait da.


Jangela zerbitzua, eguer- ditako haurtzaindegia, kirol eta jolasetarako parkea, kan- poko ikasleentzat egoitza, antzokia edo eta ekintza ex- traeskolarrak eskaintza osa- garriak dira.

Gure heziketa eskaintza,



heziketa integral baten es- kaintza da. Mariaren Lagun- diak, bere sorreratik, ikasle- aren heziketa osotasunean hartu du, gizartearen aldake- tan konpromezu aktiboko ja- rrera dugularik. Ikuspegi honetatik oinarritzotzat dauz- kagun baloreak bultzatzen saiatzen gara: askatasuna, solidaritatea, bakea, justizia. Mariaren Lagundiaren hezi- keta sustraiak hiru dimen- tsiotan daude oinarriturik batez ere: Personalizazioa, bizitzari irekiak egotea eta ikasle bakoitzaren kapazita- teen garapena.

## Aranzadi ikastola



**Inaxio Arregi**  
(zuzendaria)

1. Lehenengoz, Herriko Hezkuntz plangintza bati bu- ruz dugun eritzia galdetzen

zaigu, eta garbi dugu, ez he- rrikoa bakarrik, baizik eta bailara mailara zabal daite- keen plangintza baten behar- ra ikusten dugula, eta era serio eta sakon batean egina.

Hezkuntz plangintzaz zer ulertzen den galdezka hasten denak oso erantzun desber- dinak jaso ditzake. Guk, gure eritziz, kontuan hartu behar dugun lehenengo helburua aipatu behar dugu: hots, gure haur eta gazteentzat kalita- tezko Euskal Heziketa bat. Beraien trebetasun fisiko eta gaitasun intelektualak biz- kortuz eta, gizarte demokra- tiko baten baloreak garatuz, gure gizartearen beharrekin uztartzea, gazte hori bere he- rriko heldu bihurtu dadin eta bertan kritikoki integratzeko gauza izan dadin. Beraz, bai plangintzari, baina ikaslearen hezkuntzak behar duen plan- gintzari, honen esparru geo- grafikoa herrikoa nahiz bai- larakoa izan daitekeelarik.

Bestalde, herriko hez- kuntz plangintzaz hitzegi- terakoan ditugun ikastetxe titularren eritziak ere kontuan hartu behar dira, eta gure he- rriari sei ikastetxe ari dira derri- gorrezko irakaskuntza arautuaren alorrean: horieta- tik hiru, administrazio publi-

koaren titularitzapean daude, bat gurasoen kooperatiba batena da, beste bat irakasleen kooperatiba, eta bestea erlijiosoen titularitzapekoa. Benetakoplantingintza bat egin nahi bada beraz, bi faktore hauek izan beharko ditugu gogoan: ikasleak eta ikastetxeen autonomia.

2. Bigarrenkoz guk zer eskeintzen dugun galdetzen zaigu. Begi bistakoa da Aranzadi Ikastolak zer eskeintzen duen eta bere eskaintzak izan duen harrera. Gurasoen kooperatiba bat izanik, Eskolaurre eta OHO ko irakaskuntza eman du gaur arte oso harrera ona izan dugularik, Bergarako ikaslegoaren % 50-60 ingurua gure ikastetxean matrikulatzen baita.

Geroari begira eta Hezkuntz Erreformaren erronkari aurre eginaz, eskeintza zabalago bat prestatzen ari gara gure irakasleen heziketa hedatu eta hobetzeko asmoz: derri-gorrezko Hezkuntza Sekundarioa gure helburu nagusia izanik, datorren ikasturterako Batxilergoko prematrikula zabaltzeko baimena jaso dugu Hezkuntza Sailetik eta aurrera egiteko prestatuak gaude. 20 urteko historiak abalatzten du eta bermatzen du gure lana.

## Lanbide Heziketa eskola



Jose Ramon Arakistain (zuzendaria)

1. Jakin badakigu I.E.E. (Irakaskuntza ertainen Erreforma) laster ezarriko dela ofizialtasun mailan. Eta honek eragin handia izango du gure herriko ikastetxeetan, irakaslegoa eta ikastetxe bakoitzari dagokion irakaskuntza maila ondo zehaztuko bait ditu. Aztertze-lan hori Hezkuntza Sailak egingo badu ere, komenigarria litzateke herri mailan horretan inplikaturik dauden estamentuen artean azterlan zehatza egin eta Hezkuntza Sailari ofizialki proposatzea.

Udaleko Eskola Kontseiluan behin eta berriz aipatu izan da gai hau, baina arrazoi desberdinengatik ezin izan da iharduera plangintza zehatza burutu. Pendiente daukagun zeregin garrantzitsua.

2. Gure eskaintza zabaldu



eta hobetzeko asmotan Batxilergo Tekniko Industrial, Administratiboa eta Gestioa ere eskaintzen ditugu, Irakaskuntza ertainetako Erreformaren bigarren zikloan hala ezartzen bait da. Aurrerapen honekin, gure ikaslegoak bi aukera ditu: betiko bidea jarraituz prestakuntza teknikoa hartu, edo bide berria jarraituz unibertsitateko ikasketetarako prestatu. Une honetan, ikastetxe honek, Hezkuntza Sailaren baimenaz, duen eskaintza hau da.

Irakaskuntza ertainen Erreforma:

1. zikloa: 2 urteko iraupena. A, B eta D ereduak.

Sarbidea: OHoko ikasleak, 7.a aprobata eta 8.eko kurtsoa egin dutenak.

2. zikloa: Batxilergo Tekniko Industrial eta Administrazio eta gestio batxilerra.


2 urteko iraupenez, A eta D ereduak ditu.

Sarbidea: I.E.E. ko 1. zikloa gaintu duten ikasleak; Lanbide Heziketako 1. maila gaintu duten ikasleak; BBBko 3. kurtsoa aprobata duten ikasleak (1. kurtsoan konbalidazioak); UBI aprobata dutenak (Asignatura teknikoen garapena).

UBI amaitu duten ikasleekin talde naturalak sortzeko aukera ere eman nahi litzateke Makina-Erramintaren edo Automatismo Elektriko-Elektronikoen espezialitateak bi ikasturtetan egin ahal izan ditzaten.

### Ikastetxeetako datuak

1990-1991	IKASKETAK	IRAKASLEAK	IKASLEAK
MARIAREN LAGUNDIA	ESKOLAURREA, OHO IEE LANBIDE HEZIKETA	43	781
SAN MARTIN IKASTETXEA	ESKOLAURREA OHO	24	400
ARANZADI IKASTETXEA	ESKOLAURREA OHO	56	1.038
BATXILER INSTITUTOA	BBB UBI	44	575
LANBIDE HEZIKETA ESKOLA	IEE LH 2	55	715



# MAHER BILTEGIAK L. E. Oihal etxea

Bidekurutzeta 29. Tfnoa: 76 22 90  
BERGARA 76 26 75

# URRATS Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92  
BERGARA

# CAMACHO

- \* DROGERIA
- \* USAINDEGIA

BIDEKURUTZETA 24  
BERGARA. Tfnoa: 761335



# ETXE- -AUNDI

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak


Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI



ILEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.

Artekale 29, Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA

## Nola pasatzen duzu asteburu on bat Bergaran, bertan?



Iosu Iñarra  
19 urte

Normalean larunbatetan ikasteko zerbait badaukat, ikasi. Gero gauean, berri, poteatzera irtetzen naiz. Eta domeketan ajea pasatu, besterik ez.



Mila Azedo  
40 urte

Normalean mendira joaten naiz, eta eguraldi ona egiten badu hondartzara. Neguan kalera paseatzera irtetzen naiz.



Eider Gallastegi  
12 urte

Lagunekin jolastu eta kalean paseatu. Igandetan plazako dantzaldietara joaten naiz.



Hilario Orbea  
67 urte

Goizean lehenengo garbittu eta bizarra kendu, gero sukaldean jana gertatu. Arratsaldean lo pixkat egin eta gero txikiteora jubilatuetara

### Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean



Cercas bajas 34, GASTEIZ

## Edukazio integral baten alde

Heriotza, gosea eta izurritea... Hor ditugu apokalipsiaren lau zaldizkoak, beraien zaldi bulartsuetan berriz zamalkatuz, noizbait zamalkatzeari uko egin badiote; baina ez da ez Jainkoaren zigorra, gizonen desarrazoia baizik.

Heriotza, gosea, gerra eta izurritea... Nazio industrializatuek forma eta barietate ezberdinetan arbitrarioki hegoaldeko latitudeetarantz uxatzen dituzten injustizia sozial mundialak. Nazio aberats eta pobre, ipar eta hegoalde, explotatzaile eta esplotatuen arteko dikotomia artifiziala... betiko leloa! Edukazioak zuzenki bultzatu ohi izan duen esplotazioa. Industrializazioaren heltzearekin sistema berriak familiako kideak erreklamatu zituen obrero zerrendak sendotu nahian eta orduan familiak aurreko garaietan betetzen zituen eginkizumak, behin batean, estatuaren eskuetara pasatu ziren, beraien artean edukazioa, obreruak lanerako libratu asmoz.

Ea hor, non, Nazio industrializatua = Derrigorrezko edukaziodun nazioa.

Solidaritategak, kooperazioak, eta berdintasunak lekurik ez duten edukazio sistema, zeinek txiki-txikitatik kompetibitate bultzatzen gaituen.

Edukazio sistema bat, zeinek ez digun bizitza bere osotasunean ulertzen lagatzen.

Edukazio sistema bat, bakoitzaren pertsonalitatea erreprimitzen ahalegintzen eta indibiduoaren existentzia, konportamendu modu standartzatuetara bideratzen saiatzen da. Edukazio sistema bat, zeinek ez digun irakasten pertsona bezala erlazionatzen... Edukazio sistema bat, zeinek ados egotea ezinezkoa egiten zaigun gizartearekin konprometatzen ahalegintzen den.

Kuartzuzko estearen esklabu besterik ez garen garai hontan, Toffler soziologoak, edukazioak gizarte industrializatu batean betetzen dituen helburuak, irakaspen basikoez gain, gazteei puntualitatea, obediencia, lan errepetitiboa eta mekanikoa irakastea direla dio bere "La Tercera Ola" liburuan.

**Xabier Aranburu**

## Baserria: guztiok zaindu beharreko altxorra

Jarri zarete inoiz pentsatzengure Euskal Herria zelakoa izango zen baserriak hustuko balira, edota baserri lanari guztiz utzita baserriak etxe-bizitza soilak izango balira?

Hasteko, akabo bertako janariak. Tira, esango dūzue, kanpotik etorriko lirateke. Bai, baina zelako janariak izango lirateke? Ez behintzat ahoa betean jateko moduko gure baserrietako janari goxo, xamur, sano, fresko eta alimantu guztidunak bezelakoak, bizik nonbaiten, era industrial eta merke batean sortutako jenero latz eta pasatako denporaren poderioz sikatuak seguru asko. Eta jenero merkeak direla iruditu arren, kontutan hartu hain intentsibo produzitzeak, ingurugiroan, lur eta uretan duen eragin zuzena, baita produzitzeaile eta kontsumitzeaileen osasunean ere, hainbeste botika eta natural ez diren sistema erabiliz, zenbat energia gastatzen den garraioan, horiek egiteko lehengaiak nazio pobreenei kentzen zaizkiela,...

Gainera, zer gertatuko litzateke beste herrialde batzuk janariak bidaltzeari utziko baliote, boikota, gerra giroa edo beste edozer dela, transportisten greba dela edo... Herri batek ez al du premia bere gutxienekoa abastezimentua, inoren menpeko ez izatea (Hori estratejia militar hutsa da, baina beharrezkoa)

Eta gureinguruek hartuko luketen itxuraz, zer dinezue? Sasi eta larrak, lur abandonatuak edo gaizki zainduak (pinudiak zikin, sute arriskuak...) Onar dezagun gaur egun paisaiatz eta inguruaz disfrutatu ahal badugu baserriarren lanari esker dela. Kalea eta baserriaren arteko ekilibrioa eta azken honen nortasuna gorde beharrekoak baitira.

Eta baserrietan lanean gogoz diharduten gizon eta emakumeek zer etorkizun izango lukete?

Eta baserriak gorde izan duten kultur altxor garrantzitsua, (ohiturak, festak, euskara,...) gure euskaltasunari eusten langundu diguna, nora joango litzateke?

Ez pentsa esandakoa katastrofismo hutsa denik. Baserriko jeneroa behar bezala baloratu eta lagundu ezean, guzti hau egi latza bihurtuko da.

Eta bada garaia konturatzeko baserriarren arazoak gizarte guztiarenak direla. Horregatik, "Baserritik bizi behar dugu" kanpaina burutuko dugu datozen egunetan. Apoiatuko gaituzuelakoan nago.

**Maite Aristegi**

**GURIA**

TABERNA

o Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**ESPOLON**



School of English

Ibargarai 31, BERGARA

## Ingleseko ikastaro intentsiboak haur eta nagusientzat.

Egunean bi ordu t' erdi edo hiru, goiz edo atsaldez.  
Deitu astelehenetik ostiralera 10etatik 12.30etara  
eta 3retatik 7etara. 76 03 53 Tfno.ra.

## Galderak egiteko aukera

Hemendik aurrera orrialde honetan atari berri bati emango diogu hasiera. Bertan irakurleok egiten dizkiguzuen galderak erantzuten saiatuko gara. Egizkiguzu zuk galderak, osasun, inpuesto, lege, edo etxe nahiz kotxearen inguruan, edo... halako mantxa nola kentzen den edo... lagunarekin izan duzun diskusioan arrazola norik duen edo... nahi duzuna. Zuk galdetu, kartaz zein telefonoz, eta gu ahaleginduko gara lehenbailehen erantzun egokia ematen.

**13. Etxea errentan dut eta jabeak bota egin nahi nau alabarentzako behar duela esanez. Arrazol hori nahikoa da?**

Bai, behar bezala egiaz-tatuz gero, arrazol hori nahikoa da.

Urtebeteko aurrerapenez eman behar dizu aditzera. Esan eta 6 hilabeteko epean etxetik irtetzen baduzu, 2 urteko errentaren indem-nizazio edo kalteordaina eman behar dizu. Sei hilabete eta urtebete bitartean urtetzen baduzu, urtebeteko errentaren kalteordaina. Urtea pasa eta irten ezik, kalteordaina jasotzeko eskubidea galduko zenuke eta epaileak etxetik ateratzeko agindua emango luke.

Zuk etxetik irten ondoren, han biziko denak hiru hilabeteko epea du bertan bizitzeko. Bestela, zeuk berriz eskuratu ahal izango zenuke aurreko baldintza beretan eta ezin izango lizuke irtetzeko eskatu beste hiru urtetan.

Ondorengo arrazoietako bat nahiko da jabeak errenteroa etxetik atera ahal izateko:

- Seme-alaba edo gurasoentzako behar izatea.
- Etxea bota behar izatea.
- Etxea urtean 6 hilabete baino gehiagoz hutsik izatea.
- Errenteroak herri berean bi etxe edo gehiago erabiltzea.
- Errenteroa hutsik dagoen etxe baten jabe izatea edo



erabiltzeko benetako eskubidea izatea.

(Informazioa: KIUB)

**14. Nola garbitzen dira balnuko kortinak?**

Bainuko kortinak garbitzea ez da gauza erraza izaten eta horregatik onena ahalik eta gutxien zikindu daitezen ahalegintzea da. Horretarako, komeni da dutxatu ondoren jaboi hondarrak eta, ondo kentze eta kortina baineratik ateratzea aireatu eta lehortu dadin.

Lonazko edo algodoizko

kortinak ur berotan garbitzen dira jaboiaz. Gero behar izanez gero, plantxatu daitezke baina gehienak ez dute plantxatu beharrik. Lizun mantxak kentzen zailak dira baina lejiarekin (30 ml. lejia litro bat uretan) ahalegintzea duzu onena.

Gero sikatu itzazu zapi batekin.

Kortinak sedazkoak bada, esponja bat jaboiuretan, ur berotan, busti eta haretxe-kin garbitu leku lau baten gainean. Dena den, oso zikinak badituzu berriak erostea da onena. Badaude merkatuan lizuntzen ez direnak.

## ASAGABASTER JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabala

Gabiria 9, Tfnoa: 79 27 27 - 79 13 55 ARRASATE



## ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak


Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



□ **Berrigaratik ATBra**

Jon Andueza arrasatearra, Berrigararen sorreratik erredaktore eta maketazailer lanetan ibilia, aste honetatik aurrera ez dugu gurekin izango. Arrasate Press-en jardun ondoren, joan den urteko urritik, aurtengo maiatzaren azkeneraino, astero, astero, jo eta ke ibili da Bergarako astekarian. Hemendik aurrera lantokiz aldatuko du, nahiz eta hurrengo aleetan, gure erreibistako maketazioaz bera arduratuko den. Berrigarako erredakzioetik Arrasate Telebistako pantailletara. Suerte!!

Bat irten, beste bat sartu; Edu Mendibil bergarra izango da aste honetatik, bigarren erredaktorea. Ongi etorri!!



□ **A ze iskanbila!**

Joan zen astean Mariaren Lagundiko 6. mailakoak izan genituen gure erredakzioan. Mari Carmen Arenaza andereñoarekin batera 48 neska-mutiko hurbildu zitzaigun erreibistaren gorabeherak jakin asmoz. Ordenadoreak, inpresora, edo eta eskanerra nola erabiltzen diren erakutsi genizkien; baita euren jakinmina asetu ere. Alde egin baino lehen erretratua egin genien, eta hona hemen irudia... patata, patata...

□ **50 urte elkarrekin**

Vidal Kareaga eta Pia García de Iturrospe senar-emazteek joan den maiatzaren 15ean ospatu zituzten urrezko eztaiak. 78 urte ditu Vidalek eta 81, Piak. 4 seme-alaba eta 11 biloba. 50 urte dela ezkondu ziren San Pedroko parrokian; urrezko eztaiak ospatzeko, berriz, Oñatiraino abiatu ziren. Arantzazun meza entzun ondoren, Txopekuan elkartu ziren bazkaltzera 24 senitarteko. Vidal eta Pia, 50 urte elkarrekin. Zorionak!!



Zertan  
dihardute  
ba?

**MANU MUNIATEGI**



25 urteko margolari bergararrak "Bizkaiko Arte 1.991" Bizkaiko Diputazioak antolatzen duen lehiaketan 3. saria jaso du pintura sailean.

Manu, Leioako Arte Ederretako fakultatean lizentziatu zen iaz; Bilbon bizi da.

**EDU MURUAMENDIARAZ**



Pasaian jokatutako gipuzkoar erako Euskadiko Aurrezku Txapelketan 3. postua eskuratu du. Eduk Desafioa, Agurra, Alpargata-dantza eta Zortzikoa eskaini zituen. 26 urte, bergararra. Donostiako Eskola dantza-taldean dihardu.

*Zuhaitzi*

AFARIAK: Asteburuetan  
Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

**ayastury**

**JANTZIDENDA**

BARRENKALE, 30  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA

## Hau dok barreguria

Gure lagun rubixa batek oso begi politak dauka, bera be jakifian dago, eta egun baten badago tabernan eta mutil bat begira begira. Mutilloi ondora ehortzen joko eta mosura begiratuaz esaten dotsa serixo serixo:

- Barkatu, baiña pregunta bat ein biotsut: zuk be(g)ixak zeifienak daukazu aittanak ala amanak?



Neskia, pozik, baina honek adarrik etxostak joko esanaz moduan, kontestau zotsan irribarre batekin:

- Nik, amandrianak.
- Eta txalak?

\*\*\*\*\*

- Aitta, maixuak pre-

guntau dost Afrika nun dauan eta nik jakin ez. Zuk badakizu, aitta?

- Ez, etxakixat seguru. Nolatanahi be ezin urrin egon, gure tailerrera beltz bat egunero bizikletan etortzen dok behintzat eta.

\*\*\*\*\*

- Emaidazu buruan minik emoten eztaben zapata batzuk.

- Baina zela da hori?  
- Ba, badakizu ba..., nere andriak burura botatzeko ohiturria dauka eta.

\*\*\*\*\*

- Zela zikindu dittuzu Prakak? -amak hasarre.

- Potzura jausitta -muti-kuak triste-triste.

- Praka berrixekin?  
- Bai, baina bizkor-bizkor jausi naiz eta eztoz izan kentzeko astirik.

J. M. Elexpuru

## Bergara eta Durango (1)

Aspaldi gabe, *Berrigararen* aleetako baten Jerardo Elortzak "Olaso, gutxi batzuk i laso" esakune zaharra aipatu zuen, Bergarari zuzenean ez baizik eta gero bere egoitza gure herrira aldatutako leinu bati zegokionaren oharra eginez. Hor aipatzen den Olaso (orain Monzon-Olaso) familia Elgoibartik etorri zen, oraintsurarte herri horretako kanposantoaren ondoan zegoen eta han egiten ari diren berdintzelanak direla eta bota duten oinetxe zaharretik, bere etxe berria Reizabalen lurretan eraikiaraziz.



Baina ba da, horretaz beste, Bergara berariz aipatzen duen esakune eta atsotitzik; bat honako hau:

### BERGARA, ZEINATU ETA IGARA

Kondairak erakutsi eta esakune horrek egiaztatzen duenez ez zen giro gure herrian, bidazteiei bertan hemen goxo egiteke aurrera jarraitzeko aholkua emanarazteraino. Zalantzarik gabe, Ozaeta eta Gabiria familiek Ahaide Nagusien borroketan nahastuta elkarren aurka zebiltzaneko garaikoa dugu; jakina denez, gure herriko egoeraren larriaren larritz Errege-Erregina Katolikoek eskuhartu behar izan zuten, "aurrerantzean ez Gabiriarik ez Ozaetarik izan ez zedila" aginduz.

Josu Oregi-

# AGOITZ

## TAPIZDENDA

San Lorentzo 25 Tfnoa: 76 11 58  
BERGARA

# LONBIDE

## OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,


Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

# ZUNBELTZ

## Kafetegia

S. Arrieta Enparantza  
BERGARA



# ETXEBERRIA

## ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA



## Eusebio II Txapelkun

Hogeitahiru ekipok jardun dute udazkenetik hona C.D. Bergarak antolatutako Futbito Txapelketan. Tarte luze horretan partidu pila bat jokatu eta zenbaitetan partidu onak ere ikusi izan dira asteburuetan Labegarietako kiroldegian. Aurreko igandean jokatu zen txapelketa horretako finala eta *Eusebio II* 4 eta 2 nagusitu zitzaion C.D. Bergarari. Hirugarren postuan *Infernukua* gelditu da eta laugarrenean *Kriston Potruak*. *Bildurbarek* taldeko Juan Luis Etxanizek eskuratu zuen golegile onenaren trofeoa eta Javi Burgosek ere trofeo bat izan zuen txapelketa hau antolatzean egindako lan onagatik.



## Direktiboak eta kazetariak makal

Larunbatean ere aurtengo denboraldia agurtzeko futbol partidu bat jokatu zuten C.D. Bergarako direktiboek eta Bergaran diren kazetariak C.D. Bergararen sail ezberdinetako ordezkarien aurka. Partidua ez zen apartekoa izan baina esan beharra dago jokalari guztiak asko saiatu zirela eta zenbaitek izerditan amaitu zutela neurketa. C.D. Bergararen ordezkariak nagusitu ziren, 4-3. Gauean guztiok Antxoni Jatetxean bildu ginen afaltzera.



## Etxaniz gero eta hobeto

Badirudi Jokin Etxaniz ondo baino hobeto moldatzen ari dela Galarza txapelkunarekin. Joan den larunbatean garaipen berri bat lortu zuten Bergarako Frontoian eta oraingoan ere ez edozein modutako bikote baten aurka, Retegi II.ak eta Iturzak osatutakoa hain zuzen. Jokinek, Pazkuetan bezala, argi utzi zuen duen klasea, eta aurreko kuadroetan Retegirekin mantendutako borrokan, Jokinek behin eta berriz gainditu zuen erasundarra bere dejadekin. Hamar aldiz txapelkun izan arren, Retegik ez zuen jakin izan tantuak nola amaitu eta partidu amaieran 11n geratu ziren bera eta Iturza. Aipatzekoa baita Frontoian izandako giro aparta eta Jokinek jasotako animuak.

### Motorreroak ondo

Domekan Zallan izandako San Kosme Igoeran berriz ere Anjel Bideluze izan genuen garaile sailkapen orokorrean eta 500 zm. kubikotako kategorian. Alex Elizburuk berriz, hirugarren postua lortu zuen sailkapen orokorrean eta garaipena 250ean. Anjelek bere forma konfirmatzea baino ez zuen egin, Euskadiko Txapelketaren barne jokatu diren 4 probetatik 3 irabazi baititu. Zorionak bio!

### Skate lehiaketa

Larunbat goizean Bergarako gaztetxoek aukera ezinhobea daukate patinetearen gainean duten trebezia frogatzeko. Bederatzi t'erdietan hasi eta goiz guztian zehar Skate Lehiaketa eta Erakustaldia izango da Matxiategiko Skate pistan. Bi kategoria bereiztuko dira: 12 urterarte bata eta 13 urtetik aurrerakoentzat bestea eta sariak izango dira lehen hirurentzat.

O'NEILL  
B.B.C.  
POWELL  
PERALTA  
swatch  
h-street  
tropic  
Cotton  
ZORLAC  
WIRWALK  
GULLWING



**B**izi izan ditu Bergarako Futbol Taldeak gaur baino une goxoagoak, dudarik gabe. Horietako bat argazki hau atera zenekoa. Atotxan jokatu zuen Lasarteko Mitxelinen aurka. Partidua irabazi eta, lehen aldiz, "terzera"-ra igo zuen. Bergaratik autobusak antolatu ziren eta baita tren espeziala ere Goiko Estaziotik.

Hori 1958an izan zen. Geroago 1979an ere igo zuen, 7 urte egin eta berriz behera. Erretratuan, pankartan, erdi-arrain erdi-sputnik (orduan oso modan zegoen eta) bat ikus dezakegu Mitxelin errueda zulatzen.

Bertan agertzen direnak hauek dira, ezkerretik eskumara:

**Makurtuta:** Mari Tere Bergara, Maritxu Ezpeleta, Gurutz Arrieta, ezezaguna, Arantza Egaña, ezezaguna, Juli Muruamendaraz eta Joxe Mari Arizmendi.

**Zutik:** Asensio Gabilondo, Migel Muguire, Nikolas Romaratezabala, Jesus Arizmendi, Begoña izeneko bat, Dioni (Konde Panaderokokoa), Uztargi?, Zelai Zabal Jauregi, Frantzisko Aranzabal, Esperanza Bilbao, Osintxuko naparra, Miren Rementeria, Luis Rementeria, Colàs, Iñaki Agirre, Mari Tere (Iñaki Agirrereren alarguna), Migel Arizmendi, Enkarnita Linzoain eta Bixente Iturbe.

Alboko bi mutikoak ere ez dira ezagunak.

*Estepan Plazaola*

*Argazkia: Mari Tere Bergara*



**P. MANSO**  
Optika  
OPTIKOIA, OPTOMETRISTA  
IRIZAR IBILBIDEA 2 Tfnoa: 76 27 86 BERGARA



**ETXEBIZITZA**

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisu salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera.
- Pisu behar dut alkillerean. Tfnoa: 764255.
- Pisu bat alokatzen dut Martokuan. 761460
- Pisu salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 20etatik aurrera 764252 Tfno.ra.
- Pisu salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu alkilatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.

- Pisu salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisu salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi dugu Bergaran. 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

**LANA**

- Eraikuntza materialen biltegi baterako errepresentantea behar da. Deitu lan orduetan: 760141

**DENETARIK**

- Ihauterietan galdutako argazki kamara badaukazu. Deitu: 763270. Sarituko da.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

**SALDU-EROSI**

- Soinu bat salgai. Deitu 764195era.
- 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 761201.
- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.

- Salgai ski eta bizikleta eramangailua; bi lokarri, eta erretenarekin 762852.
- Renault 6 edo antzerakoa erosiko litzateke. Deitu 762386 Tfno.ra gaueko 10.00etatik aurrera.
- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.
- *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.
- Ford Fiesta SS-K salgai. 765869
- Hiru urte dituen Mobylette bat salgai. Prezio ona. 763276

**Hildakoak**

- Vitoriano de Pedro Martinez**  
63 urte, ekainak 2an
- Josefa Garitano Azkarate**  
98 urte, ekainak 5ean
- Severiano Uriarte**  
88 urte, ekainak 2an

**BERRIGARA**

Eskatu eta etxean

76 03 97

Gizon Emakume



Irala 2/ Barrenkale 35  
**BERGARA**

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70



# ETXALAR


**Croasantegia:** Napolitanak  
Entsaimadak  
Raketak...



**Dastaketak:**  
Batido naturalak

**Izozkiak:** Miko  
Italiar izozkiak

Boni Laskurain 4, BERGARA



## ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA